



Gipuzkoako Bazkondeak Errusiara joateko Misio komertziala antolatu du

➤ Hogeita hemeretzi enpresek parte hartuko dute, horietatik 18 gipuzkoarrak.

➤ Misio komertziala martxoaren 18a eta 22a bitartean egingo da.

Donostia, 2013ko martxoaren 15a. Errusiako misio komertziala **Gipuzkoako Bazkondeak** antolatzen du. Euskadiko Merkataritza Ganberen-Eusko Ganberak jarduera bat da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak lagundutakoa. Eta era berean ICEX eta Ganberen arteko elkarlanean barneratzen da.

Misioa, ekipo-ondasunak eta elkarleen hornikuntzarako tresnak fabrikatzen duten enpresei zuzendua dago, baita aholkularitzan aritzen direnei, ingeniarietan, informazio teknologian, eraikuntza tresna alorrean, ikus-entzunean eta argitaletxeetan ere. Misioa martxoaren 18a eta 22a bitartean egingo da.

Aurtengo misio honetan 32 izango dira munduko herrialde zabalerena bidaiatuko duten enpresak. Horietatik 18 gipuzkoarrak, 10 bizkaitarrak, 3 arabarrak eta Madrileko 8. Parte hartuko duten enpresa gehienak ekipo-ondasun alorrekoak eta industria produkteen sektorekoak dira.

Misio honen helburua Errusian dauden aukerak gure enpresei helaraztea da, merkatuan sartu ahal izateko bidea erraztuz eta sektorearen egoera bertatik bertara ezagutzeko aukera emanaz. Kontutan izan behar da, Errusia hazteko aukerak dituen merkatu bat dela, bertako baliabide naturalengatik eta industrializatzeko duen behararengatik.



Euskal Autonomi Erkidegoak, azken bi urtetan, Errusiara egin dituen esportazioei dagokionez, honako hauek izango lirateke:

PROBINTZIA	BALIO (milaka eurotan) 2012 urtea	BALIO (milaka eurotan) 2011 urtea
Araba	67.685,7	56.496,2
Gipuzkoa	65.139,9	86.421,8
Bizkaia	58.212,0	66.596,8
GUZTIRA	191.037,6	209.514,8

Euskal Autonomi Erkidegotik Errusiara 2012an esportatu diren partida garrantzitsuenak, esportazioen %85a osatzen dutenak (mila eurotan), honako hauek dira:

KAPITULU	BALIO (milaka eurotan)	
KAUTXUA ETA BERE MANUFAKTURAK	20.511,1	10,74%
TRESNAK ETA LANABESAK, AIZTOGINTZA TRESNAK ETA MAHAI-TRENAK, METALEZKOAK, TRESNA HAUEN ALORREKOAK, METALEZKOAK	16.390,6	8,58%
METALEZKO MANUFATURA ANITZAK	5.851,4	3,06%
GALDARAK, MAKINAK, MEKANIKAKO APARATU ETA TRESNAK, MAKINA HAUEN ALORREKOAK ETA APARATUAK	50.840,6	26,61%
MAKINAK, APARATUAK ETA MATERIALE ELEKTRIKOAK, ETA BERE ALORREKOAK	16.393,0	8,58%
AUTOMOBILGINTZA ETA BERE ALORREKO TRESNAK	51.801,0	27,12%
GUZTIRA	191.037,6	

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

Tfno: 943 000 310 / Móvil: 688884347